

KANALAK

Komunikazio-kanalak

Komunikazio-kanalak merkatuarekin komunikatzeko erabiltzen ditugu, batez ere balio-proposamena ezagutarazteko. Oso lotuta daude bezeroei informazioa emateko eta gure produktuei edo zerbitzuei buruzko interesa sortzeko asmoarekin. Bezeroari arreta emateko eta saldu osteko zerbitzuak emateko ere balio dute.

Enpresaren eta bezeroaren arteko harremana zuzena eta estua izatea nahi dugu.

Horregatik, hirietako leku jendetsuenetan etxolak izango ditugu. Izan ere, produktua ez du gure enpresak zuzenean salduko, hau da, Bricomart, Leroy Merlin edo denda txikien bidez salduko da. Horregatik, garrantzitsua da elkargune bat izatea gure bezeroei gure produktuari buruzko informazioa emateko eta gure negozioa ezagutarazteko.

Bestalde, bezeroaren arretarako telefono bat izango dugu, zalantzak argitzeko eta egon daitekeen edozein arazoari aurre egiteko. Gmail bat ere izango dugu, telefono-zenbakiaren funtzio bera izango duena.

Bestalde, publikora iristeko, sare sozialetan argitaratuko diren bideo batzuk egingo ditugu, jendea kontzientziatzeko ura aurrezteko ezinbestekoa dela. Gainera, gure etxolek publizitatea egiteko ere balioko dute.

Banaketa-kanalak

Banaketa-kanalak gure produktuak merkatura helarazteko erabiltzen ditugunak dira.

Banaketa-enpresa bat azpikontratatu dugu gure produktua banatzeko. Hau da, gure enpresa berria denez eta ezaguna ez denez, publiko gehiagora heltzeko beste enpresa batzuekin adostea erabaki dugu, gure produktua bana dezaten.

Guk produktua zuzenean kontsumitzaileei saltzen ez badiegu ere, lehen aipatu dugun bezala, etxola batzuk egongo dira leku jendetsuenetan jendeak eskaintzen dugun produktuari buruzko informazioa lor dezan.

Salmenta-kanalak

Salmenta-kanalak gure balio-proposamena bezeroarengana hurbiltzeko bitartekoak dira, salmentak sustatzeko. Beraz, beste enpresa batzuei bidaliko diegu gure produktua haiek saltzeko, adibidez: Leroy Merlin, Bricomart edo komertzio txikiei. Hala ere, garrantzi handiagoa emango diegu komertzioa oso garrantzitsua iruditzen zaigulako saltoki horiek enpresa handiek dituzten aukera berberak izatea.



